

MENDITAR BATEN KANTUA.—Duela urte bete auzi gogorra sortu zuten trikitilari eta kantaberri taldeek elkarren artean kanta zahar baten egile eskubideak zirela ta. Batzuk berena zala esaten zuten artean, besteak herri-kantatzat jotzen zuten, baina beraiek armonizatua. Sociedad de Autoresz-koek ordea, beti bezala, Pilatos-enak; eskuak garbitu eta kitto.

Kanta eta doinuen jabetasunez nork du aginpidea? Nork egin behar du nori berea emateko ikerketa? Zuzena al da kantak eta doinuak jotzaile eta interpretatzaileek bere izenera erregistratzea alde zurretik doinu eta letraren egileak nortsuk diren jakin gabe?

Trikitilari eta kantaberrikoen auzia «Menditar baten kanta»-ri buruzkoa zen, eta ez beste. Bi bertso hauekin hasten dena:

*Urruti nere menditik
joan nintzan dirutu nahirik.
Urrutietan laster bihotza
nahigabez erdibiturik,
gelditu nintzan tristerik
bake santua galdurik.*

*Nere bihotza zegoen
Euskal Herrian pentsatzen:
egun guztian, gauaz orobat
beti zitzaidan oroitzen
zer gozo nintzan bizitzen
haurtxo nintzanean hemen.*

Gutziz hamar bertsoz osatzen da «Menditar baten kanta», eta bere egilea Karmelo Etxegarai zena. Zehaztasun gehiago emateko, esan beharrez gaude kanta horrek lehen saria irabazi zuela Urrietako Euskal Jaietan, 1886an. Urte berean Baionako La Maignère argitaletxeak azaldu zuen 27 zentimetroko orri batean, eta gero, urte berean, *Euskal Erria* aldizkariak, XV. tomoko 295-296 orrialdeetan.

Bakoitzari berea Jainkoan legea.

* * *